

Donostian, Ekauta jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Aprillaren ogetabederatzian batzen dira Etxaide, Irigarai, Mitxelena ta Lekuona euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak, gaurko deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko, Maipuru Etxaide jauna.

Aita Villasante makal omen dabil. Baita Oleaga ere.

Araudizko otoitzaren ondoren lenaurreko batzar agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Abarrak ri buruz jardun da. Irigarai jaunak esaten dau azalean ez ote dan egoki izango erderaz “Cuentos Vascos” ipintea eta “Kirikiño” bearrean E. Bustinza. Baita ia “Abarrak” en orde “Ipuñak” ipintea ere. Oleaga jaunak argitu begiz zertzeladak Kirikiñoren ondorengoekin. Osorik ezin bada zatika argitaratu bedi. Au eta beste ipuñak argitaratzeko Labaienen iritzia jaso bear litzake trebea baita irarkoletako arazoetan.

Laffon jaunak lan bat igorri dau “Comportement syntaxique, structure et diathèse du verbe basque” azalean eta *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* en agertua.

Labaien jaunaren gutun bat irakurri da “Euskaltzaindiaren sortarauak eta araudia” berriztatua “Imprenta Izarra” n, Donostian argitaratu ditekela egokien. Seireun peseta inguru kostako omen da. Argitarau bedi eta Etxaide jaunaren eskuetan uzten da arazo au.

Aita Buenaventura de Oreiegi (O. F. M.) k bidalitako gutun bat irakurri da. Agertu dan **Euskeran** ez omen dago bera urgazleen artean. Etxaide jaunak erantzun dio bidali dezala argitasunen bat. Euskaltzaindiaren izentatzea edo noiz izan zan edo beste zerbait.

Lopez Mendizabal’ tar Ixaka’ ren gutun bat irakurri da. Ia egiñik daukan “Etimologias de 25.000 apellidos vascos” lanaren berri ematen du.

Aita Villasantek itzez eskatu zuen Arantzazuko komentuan egiteko batzar bat, ango praillen euskaltzalesunaren begirapenez. Egin bedi urringoa an datorren illeko 29’ an.

Beste gabe eta araudizko otoitzez amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadolorari-ordea
L. Mitxelena